

Jarduketa posibleen azterketa: Neurketa plana eta Inpaktu Akustikoaren Azterlana

PROIEKTU ZK.:

095482

BEZEROA: Euskal Trenbide Sarea

HARREMANETARAKO PERTSONA: Itziar Aspuru

IZENBURUA: Eibarko udalerriko inpaktu akustikoaren azterlanerako zerbitzua, Bilbo-Donostia trenbide linearako 48,052-47,050 K.P.-en artean


DATA: 23/02/20



Sin: Itziar Aspuru







Aurkibidea

1. SARRERA	4
1.1 Proiektuaren ikuspegi orokorra.....	4
1.2 Aztertu beharreko tarteen deskribapena.....	5
2. 1. EGITEKOA. NEURKETAK EGITEA AZTERTUTAKO EREMUETAN.....	10
2.1 Azpiegituraren karakterizazio-neurketak.....	11
2.2 Geltokietako eta haitzuloetako erreberberazio-denboraren neurketak	24
2.3 LIDAR neurketak.....	28
2.4 Ingurunean dauden zarata-mailen neurketa	31
2.5 Trenen igarotzeen neurketak eta ereduaren egiaztapenaren neurketak.....	38
3. 2. EGITEKOA. INPAKTU AKUSTIKOAREN AZTERKETA AZTERLANAREN EREMUETAN	43
3.1 Trenbideko zarataren modelizazioa	44
3.2 Soinu-eremuaren modelizazioa.....	46
3.3 Inpaktu akustikoaren azterketa azterlanaren eremuetan	49
3.3.1 1. tartea: Ardantzako geltokiaren ingurua.....	52
3.3.2 2. tartea. Ardantzako geltokiaren irteerako gainazaleko tartea.....	56
3.3.3 3. tartea. Amañako geltokira sartzeko tarte erdi estalia	61
3.3.4 4. tartea. Eibarko Osakidetza Ospitalea.....	64
3.4 Beste foku batzuen kontuan hartzea eta zarata orokorraren zenbatespena	65
3.5 Zarata murrizteko helburuak.....	67
4. 3. EGITEKOA. EGIN BEHARREKO JARDUKETEN DISEINUA ETA DEFINIZIOA.....	68
4.1 Teknologiaren, merkatuaren eta esperientzia praktikoen zainketa	69
4.2 Soluzioen ezaugarri akustikoen hasierako azterlana	72
4.3 Soluzioen planteamendua tarteka	74
4.3.1 1. tartea. San Andres Pasealekua 1, 2 eta 4.....	75
4.3.2 1. tartea. Arrate-Bide kalea 2 eta 4.....	79
4.3.3 2. tartea. Ego-Gain kalea 6, 8 y 10 eta Legarre Kalea 7-11-15-19.....	83
4.3.4 3. tartea. Ego-Gain kalea 22	97
4.3.5 4. tartea. Eibarko Osakidetza Ospitalea.....	103
5. Tarte bakoitzeko jarduketan hautaketa	107
1. ERANSKINA. TRENEN IGAROTZEEN NEURKETEN XEHETASUNA.....	115



1. SARRERA

Proiektu honen helburua, Bilbo-Donostia trenbide lineako 48,052 – 47,050 K.P.-en artean Eibarko udalerrian zaratak izan dezakeen inpaktua murrizteko jarduketaren diseinu akustikoa egitea da.

Txosten honen edukiak proiektu honetako 1. eta 2. zereginetan egindako lana jasotzen du, baita ETSren azpiegiturak Kalitate Akustikoko Helburuak betetzeko aztertutako eremu bakoitzean kontuan hartutako soluzio guztien azterketa ere.

3. zeregina amaitzeko, horren osagarri den txosten bat egingo da: jardueren diseinuari eta definizioari buruzko txostena. Txosten honetan azterketa-eremu bakoitzean hautatutako jarduketak aurkeztuko dira.

1.1 Proiektuaren ikuspegi orokorra

Proiektua lau zereginetan banatu da. Hona hemen zeregin horiek:

- 1. zeregina. Neurketak egitea azterketa-eremuetan.

Jarduera honen helburua hainbat helburu eta metodologia dituzten zenbait neurketa gauzatzea da; horien emaitzek egin beharreko jarduketak diseinatzeko eta definitzeko balio dute. Neurketa hauek izan dira:

- o Trenbide linearen emisioa karakterizatzeko neurketa-kanpainak.
- o Estalkipeko tartetan soinu-eremua karakterizatzeko neurketa kanpainak
- o Eredu konbinatuen emaitzak egiaztatzekeo neurketa kanpainak.
- o Ingurunean duen eragina ebaluatzeko neurketa kanpainak.

- 2. zeregina. Azterketa-eremuetako inpaktu akustikoari buruzko azterlana.

Zeregin honek azterketa-eremuaren hiru dimentsioko modelizazioa hartzen du barne, software akustiko baten bidez, indize akustikoak karakterizatzea ahalbidetuz, agertokiak ebaluatzeko eta inguruko trenbideko zarataren inpaktua murrizteko egin daitezkeen esku-hartzeak edo jarduketak aztertzeko. Zeregin hori garatzeko lan-ildoak hauek dira:

- Soluzioen eraginkortasuna diseinatzeko eta baloratzeko adierazle akustikoen definizioa;
 - Trenbideko zarataren emisioaren modelizazioa, CNOSSOS metodoaren bidez;
 - Soinu-eremuaren modelizazio, ingurune konplexuen simulazio akustikorako software baten bidez (ODEON);
 - Eredu konbinatu bat sortzea (CNOSSOS metodoaren eta ODEONen hedapenaren arteko konbinazioa);
 - Inguruko eraikinetan dagoen eraginaren ebaluazioa;
 - Bertan dauden fokuek egiten dioten ekarpenaren azterketa; eta
 - Azkenik, aztertutako tarte bakoitzean beharrezkoak diren hobekuntzarako helburuak zehazten dira.
- 3. zeregina. Egin beharreko jarduketaren diseinua eta definizioa.

Zeregin honetan, egindako ebaluaziotik abiatuta, beharrezko hobekuntza-helburuak lortzeko aukerak aztertzen dira, aurreko zereginaren emaitzen arabera. Horretarako, lan hauek egiten dira:

- Neurketen tipologiaren definizioa eta dauden soluzioen bilaketa merkatuan.
- Lor daitezkeen neurrien eta hobekuntzen azterketa.
- Alderaketa bezeroarekin eta proposamen bideragarrien definizioa.
- Soluzioen kostuen zenbatespena.
- Kostu eraginkorrerako soluzio proposamena.

Zeregin horren osagarri, soluzioak deskribatuko dituen *jarduketak diseinatzeko eta definitzeko txosten* bat sortzen da, kokapenarekin, dimentsionamenduarekin, posizionamendueskemarekin eta soluzio bakoitzaren eta proiektu osoaren kostu estimatuarekin.

4. zeregina. Proposatutako jarduketaren emaitzak egiaztatzeko txostena

Obrak amaitu eta proposatutako soluzioak gauzatu ondoren, egindako ekintzen eraginkortasuna egiaztatuko da, datuak hartuta, maila akustikoak murrizteko. Zeregin horren emaitzak proiektu honen azken txostena ekarriko du.

1.2 Aztertu beharreko tarteen deskribapena

Proiektu honetarako, azterlaneko tartea Bilbo-Donostia trenbideko 48,052-47,050 K.P.-en artean daude.



1. Irudia. Azterlaneko tarteen kokapena (iturria. Openstreetmap.org).

Bi kilometro puntu horien artean linearen trazadura aldatu egiten da, bai azpiegiturari dagokionez (geltokia, gainazaleko linea, linea erdi estalia, lineen kokapena (noranzko bakarra edo bikoitza), bai armamentu-tipologiari dagokionez (plaka gaineko trenbidea, balasto gaineko trenbidea eta kontra-erreia barne duten tartea). Hurrengo taulan trazadura deskribatzen da, eragin posibleak eta beste zarata-foku batzuk barne.

KPak	Tartea	Emisioa	Ingurune akustikoa	Eragin posiblea	Beste foku batzuk
48052-47850	1. tartea	Geltokia: SKL loturak dituzten plaka gaineko 2 trenbide	Goiko zabalera geltokian. Albo batetik itxita	Eskuineko alde: Udaletxea	Eskuineko alde: hiri-trafficoa autobus-pasabideekin
		Balazta, geldialdia eta abiatzea		Eskuinekoa: Bizitegi-erakina: behea + 4 solairu, 10 etxebizitza inguru solairu bakoitzeko (40 etxebizitza)	
		Geltokiaren artea	Estalkia		

		SKL loturak dituzten plaka gaineko 2 trenbide	Bi aldeetatik irekita	Ezkerrekoa: Bizitegi-eraikina: behe + 6 solairu, 8 etxebizitza inguru solairu bakoitzeko (64 etxebizitza)	
		Bloke bakarreko 2 trenbide balasto gainean, SKL loturekin		Eraikitzen ari diren eraikina	
47850-47730	2. tartea	Bloke bakarreko 2 trenbide balasto gainean, SKL loturekin Kirrinka Abiadura muga 40Km/h Ermua aldera; 35 km/h Eibar aldera	Bi aldeetan etxebizitzaren aurrealdea duen trenbidea	Eskuinekoa: 2 Eraikinak: behe + 6 solairu, 6 etxebizitza inguru solairu bakoitzeko (72 etxebizitza) Ezkerrekoa: Bizitegi-eraikinak: behe + 5 solairu, 11 etxebizitza inguru solairu bakoitzeko aurrealdean (55 etxebizitza)	
47730-47570	3. tartea	Bloke bakarreko 2 trenbide balasto gainean, SKL loturekin Zuzengunea	Hormigoiz itxitako alboko estalkia	Eskuinekoa: 1 Bizitegi-eraikina: behe + 6 solairu, 6 etxebizitza inguru solairu bakoitzeko (36 etxebizitza)**	
		Kurba Tunelerako sarrera		Eskuinekoa: Eraikin 1: behe + 6 solairu, 6 etxebizitza inguru solairu bakoitzeko (36 etxebizitza)	
47350-47050	4. tartea	Bloke bakarreko trenbide bat balasto gainean. Kontra-erreia Tunelaren irteera	Hormigoiz itxitako alboa duen estalkia	Ospitalea	Hiriko trafikoa abiadura handiagoan
		47+065 K.P.-an bridatutako erreia (talka-zarata) 70Km/h abiadura Ermua aldera; 55km/h Eibar aldera	Alboa harrizko ezpondara irekita duen estalkia		

1. Taula. Azterketa-tarte bakoitzaren ezaugarrien hasierako analisi

Hori dela eta, eta karakterizatzeko eta soluzioak modu uniformeaz aztertu ahal izateko modu fidagarrienean, lau lan-eremu definitu dira, eta horiei tarte deituko diegu, aurreko taulan azaltzen zen bezala.

Jarraian, tarte horietako bakoitza modu xehatuan aurkezten da.

- 1. TARTEA. Ardantza-Eibar Geltokiaren Ingurunea.

1. tartea Ardantza-Eibar geltokiaren inguruneari dagokio, Eibarko udaletxea eta San Andres Pasealekua, Mekola Kalea eta Arrate bidea kaleetako etxebizitzak dauden lekuari. Ingurune horretan, geltokia dela eta, gelditze- eta abiarazte-hotsak sortzen dira. Gune horretan, geltokiaren sarreran eta irteeran, balastoko plataformatik plaka gaineko plataformarako trantsizioak gertatzen dira, eta alderantziz.

Geltokia hormigoizko egitura batez estalita dago; irekidurak ditu San Andres Pasealekuko trafikoko biderantz eta Arrate Bideko kaleko etxebizitzetarantz.




2. Irudia. 1. Tarte – Ardantzako geltokiaren ingurunea (iturria. Openstreetmap.org).

Tarte horretan, trenbidea goiko aldeak eta alboetako batek estaltzen dute, eta udaletxera ematen duen aldea zabalik eta zutabeekin uzten da, 3. Irudian ikus daitekeen bezala.

Gune horretako azpiegitura plaka gaineko bloke bakarreko trabesa da.

Inguruak geltokiaren bi aldeetatik gertu dauden eraikinak ditu.

- San Andres Pasealekuaren alde batean, trafiko dexente duen bide bat, udaletxeko eraikina eta lau solairuko eraikinak daude.
- Beste aldean, Arrate Bidea kaleko 2 eta 4 zenbakietako etxebizitzak daude, geltokiaren atzealdera begira.



3. Irudia. 1. Tarte – Kalearen ikuspegia.

- 2. TARTEA. Gainazaleko eremua, geltokiaren irteeran.

2. Tarteak gainazalean igarotzen den geltokiaren irteera-eremua hartzen du. Tarte horretan, trenbidea estali gabe dago, eta eraikinak ditu trenbideen bi aldeetan.

- Alde batean ez dago inolako tarterik balastoaren eta Legarre Kaleko 7. zenbakitik 17. zenbakira arteko 6 solairuko eraikinen artean.
- Beste aldean, berriz, San Andres Pasealekua, trafiko dexente duen bidearekin, eta 7 solairuko etxebizitzak, Ego-Gain Kaleko 6tik 16ra bitarteko eraikinei dagozkienak, 5. Irudian ikus daitezkeenez.



4. Irudia. 2. Tarteak – Azalera-tartearen ingurunea (iturria. Openstreetmap.org).

Gune horretako azpiegitura balasto gaineko bloke bakarreko trabesa motakoa da.




5. Irudia. 2. Tarteak – Kalearen ikuspegia.

- **3. TARTEA. Kurba-gunea.**

3. tarteak bihurgunearen eremua, tunelaren sarrera/irteera eta geltokira ematen duen estalitako tarte zuzena hartzen ditu. Bihurgunearen inguruan kirrinka egiten da ibilgailuak igarotzean. Tarte horretan, trenbidea goiko aldeak eta alboetako batek estaltzen dute, eta



San Andres Pasealekura ematen duen aldea irekita eta zutabeekin geratzen da. Kale horrek zirkulazio handia du, eta Ego-Gain kaleko 16 eta 22 arteko 7 solairuko eraikinei eragiten die, 7. Irudian ikus daitezkeenez. Azken horri eragiten dio gehien trena igarotzean sortutako kirrinkak.



6. Irudia. 3. Tarte – Kurban estalitako bide-tartearen ingurua (iturria. Openstreetmap.org)..

Gune horretako azpiegitura balasto gaineko bloke bakarreko trabesa motakoa da.

Inguruan, 7 solairuko eraikinak daude, trenbideen alde batean, eta bidean trafiko handia dago. Tarteko parte batek parke ireki batera ematen du, eta ez eraikinetara.



7. Irudia. 3. Tarte – Ego-Gain Kaleko 22. zenbakiko eraikinaren eta parke-eremuaren ikuspegia.

- 4. TARTEA. Ospitalea.

4. tarteak Eibarko Ospitaletik gertu dagoen eremua hartzen du. Gune horrek beste zaratafoku batzuk ditu trenbidearen parte batean, bi errei dituen galtzadatik hurbil igarotzen baita, eta errei horietako batean bideko zirkulazio asko dago. Gainera, zarata sortzen duen erreka bat ere badago gertu.

Tarte horretan, trenbidea goiko aldeak estaltzen du, eta, parte batean, alboetako batek, Tiburcio Anitua Kalerantz, eta zabalik eta zutabeekin uzten ditu Ospitale aldera ematen duen aldea eta Torrekua kaletik gertu dauden eraikinak, 9. irudian ikus daitekeenez.



8. Irudia. 4. Tarte – Ingurune estalia ospitale-eremuan (iturria: Openstreetmap.org)..

Gune horretako azpiegitura balasto gaineko bloke bakarreko trabesa motakoa da.



9. Irudia. 4. artea – Tunelaren irteeraren eta kale-ospitale inguruko estalkiaren ikuspegiak.

2. 1. EGITEKOA. NEURKETAK EGITEA AZTERTUTAKO EREMUETAN.

Ingurunea karakterizatzeko eta etxebizitzetan izango duen eragina ezagutzeko hainbat neurketa egin da. Horiei esker, egungo zarata-mailak, zarata-foku nagusiak eta horien ezaugarriak ezagutu ahal izan dira, bai eta kartografia zehatza izatearekin lotutako neurketak ere. Horri esker, azpiegituren elementuak behar bezala definitu ahal izan dira, ondoren neurri zuzentzaileak definitzeko.

Hona hemen egindako karakterizazioak:

1. Trenbide-azpiegituraren portaera. Neurketak egin dira aztergai diren azpiegituretarten portaera akustikoa ezagutzeko.
2. Geltokiko edo haitzuloko trenbide-inguruneen portaera akustikoa. Aztertutako tartetan dauden itxituren eta estalkien eragina karakterizatzeko neurketak egin dira.
3. Trenbide-ingurunearen altxaera topografikoa. Ingurune fisikoaren neurketak egin dira puntu-hodei bat altxatuz; horri esker, hiru dimentsioko prezisiozko eredu bat (mm) lortu da trenbidearen eta haitzuloen ingurunean.
4. Inguruko eraikin adierazgarri batzuen fatxadetan dauden zarata-maila orokorrak.
5. Trenbide-pasaguneen neurketa hainbat tartetan, horien emisioa eta azpiegituren ekarpena ezagutzeko.


2.1 Azpiegituraren karakterizazio-neurketak

Neurketa horiek, batez ere, azpiegituraren zurruntasuna ezagutzean oinarritu dira, eta, horretarako, trenbidearen gainbehera-tasa neurtu da. Horrez gain, zarata sor dezaketen erreien egoera eta trenbideko akatsak ikuskatu dira.

Trenbidearen gainbehera-tasaren neurketak (TDR-Track Decay Rate).

Neurketa horiek trenbidearen portaera dinamiko karakterizatzen dute. Trenbidearen gainbehera-tasa (TDR, dB/m) funtsezko adierazlea da portaera dinamiko hori karakterizatzeko; izan ere, trenaren igarotzeak sortutako eszitazioaren uhinen arintzea islatzen du errailtan zehar. TDR zuzenean neurtzeko metodoa UNE-EN 15461:2008+A1:2011 arauan definitzen da, 100-5000 Hz zortzigarren hereneko bandetan.

Documento confidencial de uso restringido.




Zarata-sortzaile gisa erriak duen erantzuna aldatzeko jarduketak balora daitezkeenez, erreiko bibrazioaren gainbehera-tasaren neurketa hauek egin dira: Sei tartetan egin dira neurketak (balasto gaineko trenbideko 5 tartetan eta plaka gaineko batean) eta gutxienez 3 neurketa tarte bakoitzeko.


Emaiza horiei eta trenen hurrengo igarotzeei esker, trenbide azpiegituren egingo diren jarduketetatik espero den onura kuantifikatu ahal izango da.

Hainbat tartetako TDRen sei neurketak 2022/1/13ko gauean egin dira, ETSk 0:00etatik 3:00etara emandako bitartean.

1.1.- 1. Tarte: TDR Balasto Geltokiaren Sarreran Donostiatik (trenbide bakarra)



1.2- 1. Tartea: TDR Plaka



10. Irudia. 1. Tartea. TDRaren neurketa-eremuen kokapena (openstreetmap.org iturria).


2.- 2. Tartea: TDR Balasto. Azalera-tarte.



11. Irudia. 2. Tartea. TDRaren neurketa-eremuen kokapena (openstreetmap.org iturria).


3.1.- 3. Tartea: TDR Balasto peraltatua. Barruko kurba

3.2.- 3. Tartea: TDR Balasto peraltatua. Kanpoko kurba



12. Irudia. 3. Tarte. TDRaren neurketa-eremuen kokapena (openstreetmap.org iturria).

4.- 4. Tarte: TDR, balasto-Tarte, Ospitalearen aurrean.




13. Irudia. 4. Tarte. TDR Neurketa-puntuak (openstreetmap.org iturria).

Jarraian, gune bakoitzean egindako TDR neurketen emaitzak aurkezten dira.




1.1.- 1. Tartea: TDR Balastoa Geltokiko Sarreran

Eremu horretan, azpiegiturak plaka gaineko trenbidea du, zuzeneko finkapenarekin, eta DFF lotune elastikoarekin, 2010ean soldatutako UIC 54 barra luzearekin.



14. Irudia. 1. Tartearen muga-azpiegitura – Geltokiko sarrerako balastoa.



15. Irudia. TDR 1.1 Neurketa 1. Tartearen – Geltokiko sarrerako balastoa.

Trenbidearen gainbehera-tasa txikia denez, tarte horren zurruntasuna txikia dela uste da, eta horrek zarata-maila handiagoak sor ditzake.

Trenbideko junturaren hondoratze-akats argiak aurkitu dira, balastoaren eta plakaren arteko trantsizio-guneko desplazamendu bertikalei lotuta.



16. irudia. Akatsak 1. Tartearen mugan – Geltokiko sarrerako balastoa.


Kontuan hartu behar da tarte horretan bibrazioagatiko kexak daudela gainean dauden etxebizitzetan.

1.2.- 1. Tarte: TDR Plaka

Eremu horretan, azpiegiturak plaka gaineko trenbidea du, zuzeneko finkapenarekin, eta DFF lotune elastikoarekin, 2010ean soldatutako UIC 54 barra luzearekin.



17.lirudia. 1. Eremuko azpiegitura – Plaka.



18. Irudia. TDR 1.1 Neurketa, 1. Tartea, Geltokia - Plaka.

Trenbidearen beherakada-tasa oso txikia da maiztasun ertain edo baxuetatik; beraz, tarte horren zurruntasuna txikia dela uste da, eta horrek zarata-maila handiagoak sor ditzake.

Trenbidean akatsak aurkitu dira. Akats horiek, oro har, uhin-higadurarekin lotuta daude, ondo markatuta 1. trenbidearen ezkerreko erreian, Bilborako noranzkoan; eskuineko erreian, berriz, irristatze-akatsekin lotura handiagoa duten akatsak ageri dira.



Carril izquierdo dirección Ermua



Carril derecho dirección Ermua

19. Irudia. Akatsak 1. guneko trenbidean – Plaka. 1. Trenbidea.

Nasa-eremuan, efektu berberak ikusten dira geltokiaren sarreran, bai uhin-higadurari dagokionez, bai irristatzeari dagokionez, batez ere 2. Trenbidean, Donostiarako noranzkoan.




20. Irudia. Nasa-Plaka eremuko akatsak. Lehenengo biak 2. Trenbidean eta bigarrenak 1. Trenbidean.


Ikus daitekeenez, normalean, nasan irristadurarekin lotutako higadura handiagoa gertatzen da, neke-pitzadura txikiekin eta altxadura txikiekin erreiren errodadura-gainazalean, punturen batean uhin-higadura argia ere agertzen den arren.

2.- 2. Tartea: TDR Balastoa Azalera

Eremu horretan, azpiegiturak bloke bakarreko hormigoizko trabesa du, Vossloh lotura zuzenarekin eta SKL 12 klip elastikoekin eta IEC 54 erreiarekin soldatutako barra luzearekin.




21. Irudia. 2. Tarteko azpiegitura – Balastoa azalera.



22. irudia. TDR 2. Tartea – Gainazaleko balastoa.

Tarte horretan, trenbidearen beherakada-tasa ertaina da, eta 2000 Hz-tik aurrera, berriz, txikia.

Bi noranzkoko eremua da, eta zenbait akats antzeman dira trenbidean, bi errietako irudi hauetan ikus daitezkeenak, besteak beste.



23. Irudia. Trenbideko akatsak 2. Tartean – Balastoa azalera.

Uhin-luzera txikiko uhin-higaduraren akats argiak ikusten dira, irristatze eta korrugazio efektuei lotuta. Akats horiek balastoaren eta plakaren arteko aldaketatik gertu daude, 47+800 K.P.-tik geltokiraino, gutxi gorabehera.




3 – 3. Tarte: TDR Barruko eta kanpoko kurba

Eremu horretan, azpiegiturak bloke bakarreko hormigoizko trabesa du, Vossloh lotura zuzenarekin eta SKL 12 klip elastikoekin eta IEC 54 erreiarekin soldatutako barra luzearekin.



24. Irudia. 3. Tarteko azpiegitura – Barruko kurba eta kanpoko kurba.




25. Irudia. TDR 3. Tartean. 3.1 eta 3.2 Neurketak – Barruko kurba eta kanpoko kurba.

Trenbidearen gainbehera-tasa ertain-altua da, eta 2000 Hz-tik aurrera, berriz, txikia. Horrek zurruntasun handia dakar.

Bi noranzkoko eremua da, eta zenbait akats antzeman dira trenbidean, bi erreietako irudi hauetan ikus daitezkeenak, besteak beste.



Vía izquierda Zona curva



Carril Izquierdo dirección Ermua

Carril derecho dirección Ermua

Vía derecha Zona curva



Carril Izquierdo dirección Ermua

Carril derecho dirección Ermua

26. Irudia. Trenbide-akatsak 3. Tartean – Gune kurbatua. Lehenak 1. Trenbidean eta azken biak 2. Trenbidean.

Kurbaren eremuaz gain (bertan egin dira neurketak), estalkipeko eremu zuzena ere ikuskatu da, eta bertan behaketa hauek egin dira, errei egoera hobea erakutsiz.



Vía derecha Zona recta



Carril izquierdo dirección Ermua



Carril derecho dirección Ermua

Vía Izquierda Zona recta



Carril izquierdo dirección Ermua




Carril derecho dirección Ermua




6.- TDR Ospitalea

Eremu horretan, azpiegiturak bloke bakarreko hormigoizko trabesa du, Vossloh lotura elastikoarekin eta SKL 12 kliparekin eta IEC 54 erreiarekin soldatutako barra luzearekin. Ikus daitekeenez, eskuineko erreiak kontraerrei bat du.



28. Irudia. Azpiegitura 4. Tarte – Ospitalea.



29.TDR Irudia. 4. Tarte – Ospitalea.

Tarte horretan, trenbidearen beherakada-tasa ertain-txikia da, eta 2000 Hz-tik aurrera, berriz, txikia.



30. Irudia. Trenbideko akatsak, 4. Tarte – Ospitalea.

Inguru horretan, uhin-luzera txikiko uhin-higadurak eragindako akatsak aurkitu dira trenbidean, aurreko irudian ikus daitekeenez.

2.2 Geltokietako eta haitzuloetako erreberberazio-denboraren neurketak

Neurketa horien bidez, soinu-eremua karakterizatu da, hau da, gainazal islatzaile ugari, trenbidearen egitura bera barne, dituen trenbide-ingurunearen errealitate erreberberatzailea. Informazio hori baliagarria izan da tarte bakoitzean ingurune konplexuen simulazio akustikoaren eredia (Odeon) doitzeko eta balioztatzeko.

Neurketa-parametroak erreberberazio-denbora (T_r , segundoak) eta soinu-presioko mailak (SPL, dBA) izan dira. T_{20}^1 adierazlea duen erreberberazio-denbora adierazle nagusizat hartzen da bere ezaugarri akustikoak balioesteko. Neurketak iturri etenaren bidez egin ziren, UNE EN-ISO 3382 arauaren arabera. Karakterizazioa osatzeko, mailen mailak (SPL) neurtzen dira, trenbide-inguruko tarte bakoitzerako hargailu desberdinetan neurtuta, eta, trenbidearen posizio desberdinetan, noranzko orotako iturria duen banda zabaleko ausazko seinale bat sortzen da. Neurketak atzeko zarataren mailen erregistroarekin osatu ziren. Karakterizazio bakoitzean soinu-iturria gutxienez bi posiziotan kokatu da, eta ingurunean banatutako 6 mikrofonoko ekorketa batean erregistratu dira mailak.

¹ T_{20} adierazlea aukeratu da, T_{35} adierazlearen ordez, soinuaren beherakadaren lehen zatia adierazgarriagotzat jotzen delako.



31. Irudia. Erreberberazioaren neurketak.

ODEON kalkulu akustikoko programako izpien trazadura-eredua balioztatzeko, gainazalak, dimentsioak, bolumenak... behar bezala definitu behar dira. Balioztatze hori neurketakanpainan lortutako emaitzetan oinarrituta egiten da.

Neurketako 10 posizio erabili dira, honela banatuta:

- 1. tarte: Geltokia: Neurketako 5 posizio aztertu dira.
- Ez da neurketarik egin 2. tarte, estalkirik gabeko espazio irekia baita.
- 3. tarte: Teilatupeko 3 posizio aztertu dira, bat tarte zuzenean eta bi tarte kurbatuan.
- 4. tarte: Ospitalea. Bi posizio aztertu ditu estalitako tarte zuzenean.

Hurrengo taulak T20 adierazlearen (segundoak) emaitzak erakusten ditu espeketroan, eta mailen mailen neurriak (SPL), oro har, erregistratutako neurketako 10 posizioetarako.


	Tramo 1					Tramo 3	Tramo 3		Tramo 4	
	P1 Final andén encima	P2 Final estación placa	P3 Estación vías debajo	P4 Final andén cercano al túnel	P5 Entrada túnel	P6 Recta cubierta balasto	P7 Curva 1 balasto chirrido	P8 Curva 2 balasto chirrido	P9 Hospital entrada túnel	P10 Hospital recta
	P1	P2	P3	P4	P5	P6	P7	P8	P9	P10
Pos@T20 100Hz	2,0	1,9	1,6	2,2	2,0	0,9	1,0	0,6	1,1	0,8
Pos@T20 125Hz	1,7	1,2	2,2	2,0	1,9	0,5	0,9	1,1	0,8	0,9
Pos@T20 160Hz	1,7	1,6	2,1	1,6	1,6	0,7	1,2	1,0	0,8	1,1
Pos@T20 200Hz	1,6	1,6	1,4	1,8	1,5	0,9	1,2	1,2	1,0	1,1
Pos@T20 250Hz	1,6	1,3	1,7	1,7	1,5	0,9	1,1	1,0	0,9	1,2
Pos@T20 315Hz	1,5	1,4	1,6	1,7	1,4	0,9	1,2	1,1	1,1	0,9
Pos@T20 400Hz	1,6	1,1	1,5	1,7	1,6	1,0	0,9	0,9	0,9	0,7
Pos@T20 500Hz	1,6	1,3	1,6	1,5	1,5	0,8	0,8	0,8	0,9	0,9
Pos@T20 630Hz	1,6	1,1	1,4	1,5	1,2	0,9	0,9	0,8	0,7	0,9
Pos@T20 800Hz	1,7	1,0	1,5	1,3	1,2	1,0	1,2	0,8	0,9	0,8
Pos@T20 1kHz	1,5	0,9	1,3	1,4	1,2	1,0	0,9	0,9	0,7	0,9
Pos@T20 1.25kHz	1,6	0,9	1,4	1,4	1,2	0,9	1,0	0,9	0,7	1,0
Pos@T20 1.6kHz	1,7	0,8	1,5	1,3	1,0	0,8	0,8	0,7	0,5	0,8
Pos@T20 2kHz	1,6	0,8	1,3	1,1	1,0	0,9	0,8	0,7	0,6	0,8
Pos@T20 2.5kHz	1,5	0,8	1,3	1,1	0,9	0,8	0,8	0,7	0,6	0,8
Pos@T20 3.15kHz	1,4	0,8	1,2	1,0	0,9	0,8	0,8	0,7	0,6	0,8
Tipo de suelo	Placa	Placa	Placa	Placa	Placa	Balasto	Balasto	Balasto	Balasto	Balasto
Lceq (10 metros)	84,2	84,2	83,0	83,8	83,4	80,7	79,6	79,3	80,0	78,7
Lceq (20 metros)	80,6	82,3	78,1	78,5	79,4	74,7	75,4	74,8	77,4	75,3

2. Taula. Erreberberazio-denborak (T20) neurketa puntuetan

Ikus daitekeenez, erreberberazio-denborak nabarmen altuagoak dira 1. tarte, geltokian, elementu islatzaile gehiago baitaude. Jarraian, emaitzak grafikoetan erakusten dira.

1. TARTEA. Geltokia


Geltokiko haitzuloaren eremuan, erreberberazio-denboraren neurketak hurrengo grafikoan egiazta daitezke, maiztasun-banda desberdinetarako 1 eta 2 segundo arteko denborekin T20 adierazlerako.



32. irudia. Erreberberazioaren neurketak. 1. tartea. Geltokia

3. TARTEA. Egoigain kaleko 20. zenbakiko Eremu Zuzengune estalia

Ego-Gain kaleko 20. zenbakiko etxebizitzaren aurreko tarte zuzeneko haitzuloaren eremuan, erreberberazio-denboraren neurketak hurrengo grafikoan egiazta daitezke, maiztasun-banda desberdinetarako 0,6 eta 1 segundo arteko denborekin T20 adierazlerako.



33. Irudia. Erreberberazioaren neurketak. 3. tartea. Zuzengune estalia

3. TARTEA. Ego-Gain Kaleko 22aren aurrea

Ego-Gain kaleko 22. zenbakiko etxebizitzaren aurreko haitzuloaren eremuan, Amañako geltokira sartzeko kurban, erreberberazio-denboraren neurketak hurrengo grafikoan egiazta daitezke, maiztasun-banda desberdinetarako 0,6 eta 1,2 segundo arteko denborekin T20 adierazlerako.




34. Irudia. Erreberberazioaren neurketak. 3. tartea. Kurba

4. TARTEA. Ospitalea

Ospitalearen aurreko trazaduraren haitzuloaren eremuan, erreberberazio-denboraren neurketak hurrengo grafikoan egiazta daitezke, maiztasun-banda desberdinetarako 0.6 eta 1.2 segundo arteko denborekin T20 adierazlerako.



35. Irudia. Erreberberazioaren neurketak. 4. tartea. Ospitalearen aurrealdea



2.3 LIDAR neurketak

Software akustiko batean azterlanaren eremuaren hiru dimentsioko modelizazioa egiteko prezisiozko kartografia eduki behar da. Horri esker, agertokiak ebaluatuko dituzten indize akustikoak kalkulatu ahal izango dira, eta guneko balizko esku-hartzei edo jarduketei lotutako inpaktu akustikoaren murrizketarako hobekuntzak aztertu ahal izango dira. Horretarako, proiektu honetan, azpiegiturak eraikitzeko proiektuaren xehetasun-kartografiarik ezean, LIDAR teknologiaren bidez jaso dira puntuak.

LIDARen bidez, 3D eredu bat sortu da, b/n-ko puntu-hodei baten erregistroan eta esportazioan oinarritua, .rcp eta .e57. formatuetan. Informazio guztia UTM30-ETRS89 sisteman geoerreferentziatu da. Trenbide-trazaduraren 3D ereduak plataforma (balastoa edo hormigoia, trabesak eta erreia) eta trenbidetik gertu dauden bolumen garrantzitsuak (nasak, hormak, tunelak, etab.) hartzen ditu.


2022/1/13ko gauean, LIDAR ekipoaren bidez, trenbideko tarte hauek karakterizatu dira:

- 1.- LIDAR 1. tarte. Geltokiaren karakterizazio fina bi trenbideetan eta 2. tartearen zati batean
- 2.- LIDAR 3. tarte. Haitzuloen karakterizazioa tartearen zuzengunean eta kurban.
- 3.- LIDAR 4. tarte.- Ospitalearen aurreko haitzuloen karakterizazioa.

Ondorengo irudietan, eremu bakoitzean egindako LIDAR neurketen emaitzen adibideak aurkezten dira.


1.- 1. GUNEKO LIDAR







36. Irudia. 1. guneko LIDAR emaitzak.


2.- 2. eta 3. GUNEETAKO LIDAR






37. Irudia. 3. guneko LIDAR emaitzak.

3.- 4. GUNEKO LIDAR



38. Irudia. 4. guneko LIDAR emaitzak.

Puntu-hodei horretatik abiatuta, gainazalen hiru dimentsioko eredu baten 3Dko lehengoratzak egin dira. Hiru dimentsioko eredu hori da eredu akustikoan 3Dko simulazioa egiteko oinarria.



39. Irudia. Puntu-hodeitik eta inguruneke xehetasun-kartografiatik lehengoratutako azalera-ereduaren adibidea

2.4 Ingurunean dauden zarata-mailen neurketa

Inguruneke adierazgarritzat hautatutako eraikin sentsibleetako fatxadako zarata-mailak neurtu dira.

Helburua gaur egun trenbideko zaratak duen eragina kuantifikatzea ahalbidetuko duten datuak hartzea da, 4. Eginkizunean jarduketak, ezarri ondoren, balioztatzeko neurketak alderatzeko oinarrizko agertoki gisa.

Ildo horretan, hondoko zarata (trafikoa eta obrak) murrizteko eta trenen igarotzeek sortutako zarataren diskriminazioa errazteko, neurketak asteburuan egitea erabaki da, ostiraletan eta asteleheneetan edo astearteetan barne.

Horrez gain, etxebizitzetan eragina duten 2. eta 3. tarteetan alderaketa errazteko, neurketan identifikatutako trenen igarotzeek sortutako mailak erregistratu dira.


3.5 atalean ikusiko den bezala, neurketa horien emaitzak azpiegituraren ingurunearen egoera akustikoa ezagutzeko ere erabiltzen dira, aztertutako tarteetan zarata-foku desberdinen ekarpena dagoela kontuan hartuta. Horrela, neurketek, trenbideko trafikotik kanpoko hondoko zarata bat islatzeko eta kuantifikatzeko balio izan dute.

Neurketa horiek ENAC ziurtagiripean gauzatu dira, 1367 Errege Dekretuaren eta EAeko 213 Dekretuaren arabera, KAH izeneko eragina eta betetzea kuantifikatzeko. Neurketa-puntuak honako hauek izan dira:

- 1. tarteak. Eibarko udaletxean egindako neurketa (Untzaga plaza 1), San Andres Pasalekuaren atzealdeko leihoetako batean, Untzagako izkinan, Ardantzako geltokiaren parean.

Etengabeko erregistroa egin da, bost segundotik behin datuak hartuz eta gehieneko mailak lau egunez erregistratuz, ostiraletik astelehenera.

Hona hemen neurketaren xehetasunak:



Instalazioaren xehetasuna	
<ul style="list-style-type: none"> - Instalazio-data: 2022/02/25 - Neurketaren Hasiera ordua: 11:53:00 - Erretiratze data: 2022/02/28 - Neurketaren Amaiera ordua: 13:26:00 	 <p>40. Irudia. 1. Tarte – Neurketa-puntua Udaletxean.</p>

Hurrengo taulan puntu honetan egindako neurketen emaitzak laburbiltzen dira:



	Neurketa bitartea			
	Egun osoa	Goizez (07:00 h – 19:00 h)	Arratsaldez (19:00 h – 23:00 h)	Gauetz (23:00 h – 07:00 h)
Lagin kop. ($L_{Aeq,5s}$)	52.948	27.040	8.640	17.268
Gehienez	64.2	65.6	65.1	61.8
Gutxienez	85.4	82.9	83	85.4
Bitarteko indizea ($L_{Aeq, guztira, Ld, Le, Ln}$)	66,1	67,2	66,6	62,9

3. Taula. Eibarko Udaletxeko neurketak (Untzaga 1 plaza)

5 segundoan behin erregistratutako L_{Aeq} balioetatik abiatuta, jarraian erakusten den ordu-erregistroa lortzen da, ostiraletik astelehenera.



Ordu-balioez gain, 5 minutuz behingo tarteei dagokien erregistroa ere lortzen da, soinu-giroaren aldakortasuna eta bereziki zaratatsuak diren ekitaldien existentzia ebaluatzeko.





Trafikoa etengabea denez eta eraikina geltokiaren eta trenbidearen aurrean dagoenez, erregistroetan ezin da bereizi soilik trenbide azpiegiturak sortutako zarataren ekarpena. Beste zarata-foku batzuen balizko ekarpenaren azterketa modu teorikoan egiten da 3.4 atalean, datu horiek kalkuluaren emaitzekin konbinatuz.

- 2. tartea. Ego-Gain kalea, 6an egindako neurketa, gainazaleko trenbide tartearen aurrean. Ego-Gain kaleko 6. zenbakian dagoen eraikinaren lehenengo solairuan dauden ingurumeneko soinu-mailak erregistratzen dira, zehazki, San Andres Pasealekura begira dagoen terrazan.

Erregistro jarraitua egiten da, datuak segundoro hartuz eta gehieneko mailak bost egunez erregistratuz, ostiraletik asteartera.

Taula honetan, instalazioaren parametro garrantzitsuenak jasotzen dira.

Instalazioaren xehetasuna	
<ul style="list-style-type: none"> - Instalazio-data: 2022/09/9 - Neurketaren Hasiera ordua: 11:33:00 - Erretiratze data: 2022/09/13 - Neurketaren Amaiera ordua: 09:14:00 	
	
<p>41. Irudia. 2. Tartea – Neurketa-puntua Ego-Gain Kaleko 6. zenbakian.</p>	

Jarraian, puntu honetan egindako neurketen emaitzen laburpena erakusten da:


	Egun osoa	Goizez (07:00 h – 19:00 h)	Arratsaldez (19:00 h – 23:00 h)	Gauetz (23:00 h – 07:00 h)
Lagin kop. ($L_{Aeq,5s}$)	337.265	164.465	57.600	115.200
Gehienez	100,5	100,5	94,1	93,6
Gutxienez	40,6	41,6	43,6	40,6
Bitarteko indizea ($L_{Aeq, guztira, Ld, Le, Ln}$)	68,4	69,8	69,8	62,3

4. Taula. Ego-Gain Kaleko 6. zenbakiko neurketak

Neurtutako soinu-mailen segundotik segundorako erregistrotik aurrera, **ordu-erregistro** hau lortzen da:




Baita **5 minutuz behingo erregistroa** ere:



Hiri-trafiko etengabea dela eta, erregistroko datuetan ezin da bereizi soilik trenbide azpiegiturak sortutako zarataren ekarpena. Beste zarata-foku batzuen balizko ekarpenaren azterketa 3.4 atalean egiten da modu teorikoan, datu horiek kalkuluen emaitzekin konbinatuz.

Horrez gain, puntu honetako neurketan honako ekitaldi hauek erregistratu ziren, neurketak egin zituen teknikariak behatuta:

Fokua	Data ordua	Ekitaldiaren iraupena	LAFmax	L _{Aeq} , ekitaldia
Kamioiaren igarotzea	13/09/2022 9:14	00:00:05	70,95	68,2



Trenaren irteera geltokitik Bilborako noranzkoan (1. Trenbidea)	2022/09/13 13/09/2022 9:16	00:00:10	87,64	81,9
Trenaren sarrera geltokira Donostiarako noranzkoan (2. Trenbidea)	2022/09/13 13/09/2022 9:21	00:00:15	86,89	79,8

* Merkantzien igarotzea 23:00etatik 23:30era.

6. Taula. Ibilgailuen igarotze ekitaldiak Ego-Gain Kaleko 6. zenbakiko neurketa-puntuak

- 3. Tartearen Ego-Gain Kalea 22an egindako neurketa: Ego-Gain Kaleko 22. zenbakian, azpiegiturari begira dagoen terrazan (San Andres Pasealekua kalea), dauden ingurumeneko soinu-mailak erregistratzen dira.

Erregistro jarraitua egiten da, datuak segundoro hartuz eta gehieneko mailak lau egunetan erregistratuz, ostiraletik astelehenera.

Taula honetan daude jasota neurketaren xehetasun garrantzitsuenak:

Instalazioaren xehetasuna	
<ul style="list-style-type: none"> - Instalazio-data: 2022/08/19 - Neurketaren Hasiera ordua: 11:13:00 - Erretiratze data: 2022/08/22 - Neurketaren Amaiera ordua: 13:07:00 	
	
42. Irudia. 3. Tartearen – Neurketa-puntua Ego-Gain Kaleko 22. zenbakian	

Jarraian, puntu honetan egindako neurketen emaitzen laburpena erakusten da:

	Neurketaren bitartea			
	Egun osoa	Goizez (07:00 h – 19:00 h)	Arratsaldean (19:00 h – 23:00 h)	Gauetan (23:00 h – 07:00 h)
Lagin kop.	266.042	136.442	43.200	86.400


(L _{Aeq,5s})				
Gehienez	54,1	58,1	57,9	45,7
Gutxienez	104,4	103,5	101	104,4
Bitarteko indizea (L _{Aeq, guztira} , L _d , L _e , L _n)	76,3	77,6	76,6	72,1

6. Taula. Ego-Gain Kaleko 22. Zenbakian egindako neurketak

Segundo bakoitzean erregistratutako balioekin, soinu-mailen ordu-bilakaera zehazten da:



Ordu-erregistroaz gain, segundo bakoitzean erregistratutako balioetatik abiatuta, soinu-mailen bilakaera ere lortzen da 5 minuturo.



Aurreko kasuetan bezala, Hiri-trafiko etengabea dela eta, erregistroko datuetan ezin da bereizi soilik trenbide azpiegiturak sortutako zarataren ekarpena. Beste zarata-foku batzuen balizko ekarpenaren azterketa 3.4 atalean egiten da modu teorikoan, datu horiek kalkuluen emaitzekin konbinatuz.

Horrez gain, puntu honetako neurketan honako ekitaldi hauek erregistratu ziren, neurketak egin zituen teknikariak behatuta:

Fokua	Ekitaldiaren hasierako ordua	Ekitaldiaren iraupena	L _{Aeq} , ekitaldia
Aldiriko trenaren igarotzea 2. Trenbidea. SS Noranzkoa	2022/08/19 11:16:45	20	87,1
Aldiriko trenaren igarotzea 1. Trenbidea. Bi Noranzkoa	2022/08/19 11:19:19	10	95,7
Kamioiaren igarotzea 1. Trenbidea. Bi Noranzkoa	19/08/2022 11:23:11	10	71,8

Aldiriko trenaren igarotzea 2. Trenbidea. SS Noranzkoa	2022/08/19 11:32:27	10	84,1
Aldiriko trenaren igarotzea 2. Trenbidea. SS Noranzkoa	2022/08/22 12:47:45	15	94,4
Aldiriko trenaren igarotzea 1. Trenbidea. Bi Noranzkoa	2022/08/22 13:02:30	25	86,2

7. Taula. Ibilgailuen igarotzeak Ego-Gain Kaleko 22. zenbakiko neurketa-puntu

- 4. Tarte. Neurketa Osakidetzako Eibarko Ospitalean: Soinu-mailak erregistratzen dira Osakidetzako Eibarko Ospitalean, zehazki, Torrekua bidera begira dagoen fatxadako puntu batean.

Etengabeko erregistroa egiten da, bost segundoan behin datuak hartuz eta gehieneko mailak lau egunetan erregistratuz, ostiraletik astelehenera.

Taula honetan, neurketaren xehetasunak laburbiltzen dira:

Instalazioaren xehetasuna	
- Instalazio-data: 2022/02/25	
- Neurketaren Hasiera ordua: 11:10:00	
- Erretiratze data: 2022/02/28	
- Neurketaren Amaiera ordua: 12:28:00	
43. Irudia. 4. Tarte – Neurketa-puntua Torrekua kalean.	

Jarraian, neurketen emaitzaren laburpena jasotzen da:

	Neurketa bitartea			
	Egun osoa	Goizez (07:00 h – 19:00 h)	Arratsaldez (19:00 h – 23:00 h)	Gauetz (23:00 h – 07:00 h)
Lagin kop. ($L_{Aeq,5s}$)	52.786	26.866	8.640	17.280
Gehienez	60.2	63.6	63.8	53.2
Gutxienez	92.9	90	89.6	92.9
Bitarteko indizea ($L_{Aeq, guztira, Ld, Le, Ln}$)	68,4	69,9	69,0	63,0

7. Taula. Eibarko Ospitaleko neurketak

5 segundoan behin erregistratutako balioetatik abiatuta, soinu-mailen ordu-bilakaera lortzen da:



Bost segundotan behin erregistratutako balioetatik abiatuta, soinu-mailen 5 minutuz behingo bilakaera lortzen da:




Aurreko neurketa guztietan bezala, hiri-trafiko etengabea dela eta, erregistroko datuetan ezin da bereizi soilik trenbide azpiegiturak sortutako zarataren ekarpena. Beste zarata-foku batzuen balizko ekarpenaren azterketa 3.4 atalean egiten da modu teorikoan, datu horiek kalkuluen emaitzekin konbinatuz.

2.5 Trenen igarotzeen neurketak eta ereduaren egiaztapenaren neurketak

Trenbide tarteetan zirkulatu duten unitateen portaera ezagutzeko, hainbat puntutan trenen igarotzeen neurketak egin dira, baita eredu konbinatuen emaitzak egiaztatzeko neurketak ere.

Azterketa $L_{Aeq,TP}$ trenen abiadura kontroleko maiztasun-espeketroan igarotzearen maila baliokidean egiten da, UNE-EN ISO 3095-2014 arauan oinarrituta, unitate bakoitzaren igarotzea erregistratuz.



44. Irudia. Arauaren araberako LAeq,tp-en zehaztapena

Horrela, guztira 52 tren igarotze erregistratu dira neurketa-kanpaina honetarako.

Aukeratutako neurketa-puntuak, trenbideetatik ahalik eta gertuen (trafiko-bidetik, hormetatik edo beste batzuetatik dauden mugak kontuan hartuta, eta fokua zuzenean ikusteko aukera ematen duen altueran), honako hauek dira:

- 1. Tarte. Geltokiko gunea. Bi puntu (P5 eta P6) Arrate bideko etxebizitzetara begira.




45. Irudia. 1. Tarte – Trenen igarotzeen neurketa-puntuak.

- 2. Tarte. Gainazaleko eremua. Bi puntu (P3 eta P4). P3 Zuzenguneko eremua (Erreferentzia-puntua) eta P4 Plaka/balasto trantsizioko gunea (1-2 Tarte).



46. Irudia. 2. Tarte – Trenen igarotzeen neurketa-puntuak.



- 3. Tarte. Bihurgunea. Bi puntu (P1 eta P2). P1 Bihurgunean kirrinka duen gunea eta P2 estalkia duen zuzengunean kirrinkarik gabeko gunea.



47. Irudia. 3. Tarte – Trenen igarotzeen neurketa-puntuak.

4. Tarte: Ospitalea. Bi puntu (P7 eta P8). P7 trenbidearen atzealdean horma islatzailea duen gunean, eta P8. trenbidearen atzealdean landaretza (xurgatzailea) duen gunean.




48. Irudia. 4. Tarte – Trenen igarotzeen neurketa-puntuak.

Zirkulazioak doitzeko, erroadura-zarata besterik eragiten ez duten puntuak hartzen dira erreferentzia-puntutzat, errailen egoeratik kirrinka edo traketeoak saihestuz. Puntu horiek P2, P3 eta P7 dira. Gainerako puntuak efektu bereziak dituzte, hala nola kirrinka hotsa, inpaktua edo geltokiaren eragina. Puntuen neurketa guztiak 7,5 m-ko distantziara erreferentziazten dira, alderatu ahal izateko.

Erreferentzia-puntuak eta egoera bereziak dituzten gainerako puntuak berezita aztertuta, honako balio hauek aurkezten dira, bai taula-formatuan, bai formatu grafikoan. Gainera, zirkulazioaren noranzkoak eta dagozkion trenbideak bereizten dira.

	LAeq,tp corregido por distancia todas a 7,5 metros							
	P1	P2	P3	P4	P5	P6	P7	P8
Bilbao	87,4	74,8	77,4	83,2	84,0	88,0	78,9	87,4
Donosti	92,6	79,5	79,8	88,2	82,8	86,9		
Características	Chirrido Curva Especial. Balasto	Recta. Cubierta. Balasto	Recta Referencia. Balasto	Estación. Chirrido. Impacto transición balasto/placa. Aceleración y frenado	Estación. Chirrido. Placa. Aceleración y frenado	Estación. Chirrido. Placa. Aceleración y frenado. Impacto	Referencia	Chirrido

8. Taula. Puntu bakoitzean distantziaren arabera zuzendutako batez besteko $L_{pAeq,TP}$ mailak.



49. Irudia. Puntu bakoitzean distantziaren arabera zuzendutako $L_{pAeq,TP}$ mailak.

Laburbilduz, aztertutako puntuen eta erreferentzia-puntuen arteko aldeak hurrengo taulan azaltzen dira, Bilborako eta Donostiarako noranzkoak berezita.

Aldeak Bilborako Noranzkoan				
1. Tarte (P5-P3)	1. Tarte (P6-P3)	1.-2. Tarte (P4-P3)	3. Tarte (P1-P3)	4. Tarte (P8-P7)
6,6	10,6	5,8	10	8,5
Aldeak Donostiarako Noranzkoan				
1. Tarte (P5-P3)	1. Tarte (P6-P3)	1-2 Tarte (P4-P3)	3. Tarte (P1-P3)	4. Tarte (P8-P7)
3	7,1	8,4	12,8	8,5

9. Taula. Aztertutako puntuen eta erreferentziaren arteko aldeak.

Gainera, egindako neurketetatik ondorioztatzen da, oro har, Donostiarako noranzkoko trenbideak (barrukoenak eta hormetatik gertuenak) Bilborako noranzkoko trenbideak baino soinu-igorpen handiagoa duela. Gutxi gorabehera, honako hauek dira trenbideen arteko aldeak, neurketa-puntuaren arabera:

- +5 dBA kirrinka duen gunean
- +2,4 dBA gune irekian
- -0,3 dBA geltokiaren gunean, abiaraztearekin eta balaztatzearekin.

	1. Tarte		1.-2. Tarte	2. Tarte	3. Tarte	3. Tarte
	P5	P6	P4 (kirrinka)	P3 (kirrinkarik gabe)	P1	P2 (kirrinkarik gabe)
Donostia/ San Sebastián	82,8	84,1	88,2	79,8	92,6	79,5
Bilbo	84	88	83,2	77,4	87,8	74,8
Aldea	-1,2	-3,9	5,0	2,4	4,8	4,7

10. Taula. Bi trenbideetan neurtutako zarata-mailen arteko aldeak.

Trena igarotzean egindako neurketen xehetasuna 1. Eranskinean azaltzen da. Trenen igarotzeen neurketen xehetasuna.



3. 2. EGITEKOA. INPAKTU AKUSTIKOAREN AZTERKETA AZTERLANAREN EREMUETAN

Fase honetan, azterketa-eremuaren hiru dimentsioko modelizazioa egiten da software akustikoaren bidez. Software horrek indize akustikoak karakterizatzeko, agertokiak ebaluatzeko eta inpaktu akustikoa murrizteko hobekuntzak aztertzeko aukera ematen du, gunean egin daitezkeen esku-hartzeak edo jarduketak barne.

Zeregin horretarako, adierazle akustiko hauek hartzen dira kontuan, soluzioen eraginkortasuna diseinatzeko eta baloratzeko:

- Finkatutako kontrol-hargailuetan trenen igarotze batek sortutako zarata-maila, $L_{Aeq,TP}$.
- L_d , L_e eta L_n batez besteko zarata-mailak (eguneko 07:00-19:00, arratsaldeko 19:00-23:00 eta gaueko 23:00-07:00, hurrenez hurren).
- Kalitate Akustikoko Helburuak (KAH) ez betetzea, trenbideko zirkulazioak sortzen duen kanpoko zarata-mailagatik, $L_{Aeq,eguna}$, $L_{Aeq,arratsaldea}$, $L_{Aeq,gaua}$ parametro akustikoetatik abiatuta.
- Inguruko eraikin sentsibleetan dauden L_d , L_e eta L_n zarata-mailei beste foku batzuk gehitzea. Azterketa hori 3.4. ataleko etxebizitza-talde batzuetarako egiten da.

Azterlaneko kasuan, aztergai diren trenbideak dauden ingurunearen konplexutasunak ez du zarata-mapen metodologia tradizional batekin lantzea ahalbidetzen; aitzitik, metodologiak konbinatu behar dira horiek egiteko.

